

DONOSTI'RA BEGIRA (Urtarrillean)

ERREGEEN EGUNA

Erregeak igaro ondoren, jota geratzen da bat.

Erregeak kate luzea dakarre.

Gauza asko lortuko dira, baiña Errege-eguna astu nai izanda be, umientzako jostallu ta ekintzak gogoratu eragingo dabe.

Ez dago amarik egun au galtzeko bere abotsa emongo leukenik. Gaitz. Era batera edo bestera deitu jaiari, or konpon.

Erregeak sinismenak agertuak, edo mitikoak izan, edo gurasoak... bakoitzaren sinistetan dago.

Urtea, bein ori ezker, negu latzean galtzen da. Berakadan.

* * *

SAN ANTON EGUNA

Illaren erdi ondoren, or dago san Anton.

Traktoreak galdu eragin ditue, edo ta baste-rrean laga, lengo oiturak. Baserritarrak ez dauke zetan gogoratu ganadurik ez dala uztartu bear egun onetan.

Arrantzalien san Anton, tertzak besiguz beteta ekarteko eguna be, joan zan pikotara. Europa'ko batzarren baimen edo lizentzien aurrez joan be.

Besigua, gaur, beste erako arrantza-bidez, len amuekaz, gaur arrastaka erabilten diran saretan artuta, urte guztian ikusten da asko edo gitxi, ta san Anton galdu zan besiguaren kezketan.

* * *

DONOSTI'KO TANBORRADEA

Donosti dator ondoren, bere egunagaz. Done-osti, itzaltasuna apurtu edo eten nairik. Rau!

Tanborradak orru egin dau! Otz nai egualdi gordin, olerkariarena:

*Biotz alai,
begi ernai,
erri danak
kaletan jai.*

Erri bakoitzak bere ezaugarria. Donosti'k, negu baltzean, tanborrada. Olerkariari jarraituta,

*Bereak ditu Donosti'k
edertasun parra parra,
baiña biotzak batzeko
bego tanborrada!*

Nai ta beste askotan gerrako izkilluak jotako tanborra entzun bear.

* * *

BILINTX'EN TANBORRADA-EGUNA

Gogoratu 1876 urteko egun onetan gertatua.

Karlistak granadak erri barrura jaurtiten inar-duela, alako batek euskal poeta samur eta bigun bat jo ta anka bjak lertuta laga eban. Indalezio Bizkarrondo zan, «Bilintx».

Bere esanetan, bizitzak asto txiki bat joten dan lez makaldu eragindako gizona. Jasan (sufridu) eta negar egiteko jaioa. Ba-dirudi pobrearen bertsoetan berbera agertzen dala:

*Beste alibiyorik
pobriak ez daka,
negarrez jayo eta
bizi arrastaka.*

Negua, era batera edo bastera, danok daroagu lepoan. Lenakoena: zelan artu ala bastartu.

A. ZUBIKARAI

ILIZA ITXIRIK

Andra Mari'n eleiza, eleiza andia!
Andiak bai, senduak, zeure arriak,
Euren lekuan tente; igaro dira,
euren aurrian
ibayen urak letxe, urte, ta eunkiak

* * *

Araño elduten gara, ibillaldian,
gaziak ezkaranak, negu arrastian.
Eta barruban, bakartaldian,
Jesus'en oñazetan, geure eskariak.

* * *

Aurten bere, araño elduten gara,

ta sartu gura geunke. Atia itxita.
Txukundu dabe eliza, polita dago,
ta zikindu eztaitean, itxi atia.

* * *

Emen naukozu, Jauna, zeure ata-
dian,

Zenbat bider Zu bere, biotz atian,
deitu ta itxaron:

baiña eztabe idegiten, zeure semiak.

* * *

Gu-maitasunagaitik, gizona eginda,

maite gaituzulako, oteundegian,
itxaroten gaituzuz, illunpian

* * *

Baiña batzuentzako, ezta naikua,
kanpoko atia bere, giltzaz itxita,
urrezko kaiol ortan espetxekua
egin zaitube, Jauna, txori txikia.

* * *

Zeure maitaliak ezin ondoratu...
Geure zorakeriak, Jauna, parkatu!

UTARSUS